

«Sinn Fein 1905ean sortu zen, eta gure historian inoiz baino gertuago gaude Irlanda batutik»

Apirila da eta Gerry Kelly GAUR8ren zain dago Sinn Feinen egoitzan, Belfasteko mendebaldean. Britainiar Armada 1969an jartzen hasi zen burdin he-siek auzo asko banatzen jarraitzen dute, uhartearen iparraldea hogeita hamar urtez astindu zuen gatazkaren ondorio gisa. Kelly bera ere horren parte izan zen. 17 urterekin sartu zen IRAn, preso politikoa izan zen eta gero Sinn Feinen ordezkari gisa aukeratu zuten. Sakon ezagutzen ditu Irlandako bake prozesuaren nondik norakoak, Ostiral Santuko Akordioarekin amaitu zuten negoziazioetan parte hartu zuelako, Gerry Adams eta Martin McGuinnessekin batera. 70 urterekin, gehienak baino baiko-rragoa da, agian britainiarren errepresioa atzo balitz bezala gogoratzen duelako, eta badakielako hainbat faktorek errepublikanismoaren alde jokatzeko dutela bake garai honetan. Sinn Fein da egun Irlandako alderdi nagusia, eta alderdiak jarrera hori indartuta ikusi zuen maiatzeko udal hauteskundeetan lortutako emaitzen ostean, elkarritzeta hau egin eta hilabetera. Hegoaldean, inkesten arabera, Mary Lou McDonald izan daiteke Irlandako hurrengo lehen ministro, eta uhartearen bateratzeak ez dirudi hain urrun. Baina, nola iritsi dira honaino?

Gatazkaren ia fase guztiak bi-zi izan dituzu. Preso politikoa izan zinen eta Ostiral Santuko Akordioaren negoziazioetan parte hartu zenuen. Nola-koa zen giroa une hartan?

GERRY KELLY

SINN FEINEKO PARLAMENTARIA

Sinn Feineko parlamentariak eta preso ohiak bakea lortzeko duela 25 urteko negoziazioen errepasoa egin du, eta irla batzea lortzeko baikor agertu da.

Ibai AZPARREN

Garai modernoan, gatazkak bi modutan amaitzen dira. Erabateko garaipena gerta daiteke, eta alde batek bestearen aurka porrot egitea. Baina hori gertatzen ez denean, itopuntu batera iristen zara, eta horrek negoziazioei bide ematen die. Uste dut horretaz ohartu zirela agintari errepublikanoak. 80ko hamarkadan, 1994an jar-duera militarra utzi baino hamar urte lehenago, Gerry Adamsek ‘*Scenario for Peace*’ garatu zuen. Pentsatzen zuen: Nora goaz? Bide politiko bat jarraitzeko aukera dago? Badakigu gerrak eta gatazkak direla azken baliabidea, baina horretara behartuta sentitzen zara eta hori lortzeko beste modurik ez dagoela sentitzen duzu. Hori guztia, gainera, eskubide zibilen aldeko borrokaren –ti-roekin zigortu zutena– eta gertatu zen guztiaren ondoren. Hala ere, errepublikanoek gatazka horretatik ateratzeko modu bat zegoela uste zuten. Britainiarrek eta komunikabideek, ordea, egoera konponezin gisa deskribatu izan zuten beti. Baina guk ez dugu hori inoiz onartu.

Nolakoak ziren gobernu britainiarrarekin martxan jarritako elkarritzeta horiek?

Martin McGuinnessekin batera parte hartu nuen Londresekin izan ohi ziren noizbehinkako harremanetan. Hala ere, IRAko boluntario gazte bat baino ez nintzen 1972an lehen su-etena gertatu zenean. Britainiarrek erabili egin zuten su-etena hori, eta beraz ez zen benetakoa izan. Izan ere, psike errepublikanoan beti egon zen ideia hau: britainiarrak ez zirela zintzoak, ez zutela bakea nahi. Beraz, bi aldeetatik zaila izan zen aurrera egitea mesfidantza horregatik. Hala ere,

oso maila altuko errepublikanoen eta Erresuma Batuko gobernuaren arteko noizbehinkako kontaktua bazegoen. 1989an kartzelatik atera nintzen, eta 1993an, Sinn Feinekin bat egiteko eskatu zidaten, eta gero negoziazioetan parte hartzea eskatu zidaten, McGuinness eta Gerry Adamsekin batera.

Izan zen bakea gauzatzeko une erabakigarririk?

Gobernu britainiarreko ordezkari batekin 1993an egindako bilera bat dut gogoan. Bi ordezkari izango zirela suposatzen zen, baina bakarra etorri zen. Eta IRAk Londresen egindako atentatu baten ondoren izan zen, non bi gazte hil ziren. Baina bilerak aurrera jarraitu zuen. Bertan, tipoak esan zuen Irlandaren batasuna saihetsezina zela. BBCK programa bat egin zuen berari buruz. Guk “Fred” esaten genion, haiek “Robert”, inork ez baitzekien bere izena une hartan. Argi eta garbi, gobernu britainiarreko inteligentzia zerbitzuetako kidea zen. Baina bile-ratik atera zena hauxe izan zen: Irlanda batu bat egongo zela esatea. Beraz, lidergo maila batera itzuli ginenean eta horri buruz hitz egin genuenean, esan genuen ona zela hori esatea, baina edozer gauza esan daiteke gela pribatu batean. Negoizazioak gauzatzeko gaitasun formalekin batera eraman behar da. Une hori, nolabait, historikoa zela uste ez nuen arren, gaur egun, atzera begiratuta, zalantzarik gabe garrantzitsua izan zela aitortzen dut.

Negoizazio horietan, kontatutakoa bezalako itxaropen uneez gain, izan zen impasse unerik ere?

IBILBIDEA

1953an jaio zen Belfasten. 1973an, Londresen, IRAko beste hainbat kiderekin batera atxilotu zuten, eta 1989ra arte ez zen espetxetik atera, gose greba eta ihesaldi saiakera baten ondoren. Orduz geroztik, Irlandako iparraldeko Biltzarreko kidea izan da.



Argazkiak: SINN FEIN

na, uste dut 31.000 soldadu britainiar baino gehiago zeudela hemen. Gotorleku militar bat zegoen mugan zehar. Hiru hamarkadatan etengabeko borroka izan zen, ia egunero. Orain ez daukagu horrelakorik. Tira, justuak izateko, bakea dugu. Bakeak jendea askatu zuen; politikoki eskaini genezakeena, beste alderdiek eskaini zezaketena, ikus zezan. Gainera, gatazkaren hiru hamarkadetan politizazio handiko gizarte bihurtu zen.

Elementu zehatzei dagokiez, polizia aipatu dezakegu. Orduan %100 britainiarra zen eta %95, protestantea. Hori aldatu egin behar izan genuen. Ez zen adostu Ostiral Santuko Akordioan, baina geroago adostu zen. Orain ni neu polizia batzordean nago, eta Polizia Kontseiluko kide naiz –poliziaren kontuak emateko mekanismoa–. Aldaketa izugarria da. Orain %30 katolikoak dira. Horren ondorioz gertatu zen beste gauza on bat izan zen askoz emakume gehiagok ere bat egitea.

Gogoratu behar da diskriminazioa endemikoa zela iparraldean. Horregatik izan zen gatazka. Eta uste dut aldaketa haxe izan zela: Ostiral Santuko Akordioak gatazkaren arrazoiak aztertzen zituela. Ez zen garatu bakea lortzeko asmoz bakarrik. Eta, egia esan, gu ez geunden han bakea lortzeko bakarrik. Bakea gerraren falta besterik ez da, eta guk bakea eta justizia nahi genuen. Ostiral Santuko Akordioak aurrera begirako bide politikoa ahalbidetzen zuen.

Erakunde partekatuen bidez. Bai. Egia da blokeatu egin direla hainbat egoeratan, eta orain, hauteskundeak irabazi ondoren, blokeoa daukagu.

1994an, IRAk jarduera militarra geldiarazi zuen elkarriketak ahalbidetzeko. Britainiarrek gutxiengo gobernua zuten, kontserbadorea, John Major buru. Eta legealdia aurrera ateratzeko, unionisten beharra zuten. Beraz, su-etena egonez gero dena posible izango zela esan zuten arren, argi geratu zen aurrera egiten saiatu beharrean luzamendutan ibiltzen zirela. Eta orduan IRA, elkarriketetan parte hartzen ez zuena, baina aurrera egitea nahi zuena, gerrara

itzuli zen, 18 hilabeteko su-etaren ondoren. 1996. urtea zen.

Urtebete geroago Tony Blairren garaipena iritsi zen eta negoziatu nahi zuen gobernu laborista batekin topo egin zenuten.

Tony Blairrek, lehen aldiz Erresuma Batuko gobernu guztietan, pentsatu zuen bazegoela norabait iristeko aukera. Eta hori, Sinn Fein SDLPekin eta John Humerekin hitz egiten ari zelako, eskua luzatzen ari


ginelako eta beste elkarriketa batzuk abian zeudelako. Beraz, atmosfera bat sortu zen. Eta John Hume oso garrantzitsua izan zen Hume-Adams elkarriketa famatu horiek aurrera ateratzeko. Negoziatzaileak aukeratu behar zirela esan zutenean, esan genezakeen, «tira, ez, negoziatzen ari gara jada». Baina esan genuen, «hauteskundeak nahi dituzue, ados». Beraz, hauteskundeetara joan ginen. Lehen aldiz aukeratu ninduten. Ez nuen uste politikaria izango nintzenik,

egia esan, baina hor duzu. Horrek eraman gintuen Ostiral Santuko Akordiora. Unionistek, David Trimble buru zutela, ez zuten gurekin hitz egin Ostiral Santuko Akordia sinatu zen arte.

Akordioaren aurretik eta ondoren Irlanda ikusi dutenekanahikoa elementu dituzte balorazio positiboa egiteko. Nola aldatu da Irlanda 25 urte hauetan?

Izugarri aldatu da. Hau zen Europako gunerik militarizatu-

Hala ere, eta agian harrituko zaitu nik hau esateak, baina itxaropen handia dut eta oso baikorra naiz, orain izan ditugunak baino arazo handiagoak izan baititugu. Ostiral Santuko Akordioaren oinarri den konfigurazioak edo egiturak hiru maila ditu eta elkarren mendeak dira. Beraz, bat eroriz gero, denak erortzen dira. Irlandako iparraldean osatzen duten sei lurraldeen arteko Biltzarra dago, eta bertako kide naiz. Gero Ipar-Hegoa Ministro Kontseilua dago. Ni ere ministro izan nintzen urte batzuetan. Adibidez, iparraldeko eta hegoaldeko ministroak osasungintzarako, hezkuntzarako, garraiorako edo azpiegituretarako elkartzen ziren. Eta gero Irlandako gobernuaren eta gobernu britainiarraren arteko ekialde-mendebalde harremana zegoen. Horregatik diot jada ez dugula orduan existitzen zen diskriminazio politikoa. Eta horrek zer esan nahi zuen azaltzeko adibidea Derry da. Hiri katolikoa zen %90ean, baina haren ordezkari hautetsien bi heren unionistak ziren. Esan nahi dut batzuetan jendeak esaten didala ezer ez dela aldatu. Erridikulua egiteari uzteko eskatzen diet nik. Gazteak ginenean, baita irlandar jokoetan jokatzeko ere, futbol gaelikoan edo hurlingean, esaterako, ez zen erraza. Gobernua aurka zegoen. Orain, seme-alabak eta bilobak ditut, eta hurling makilekin ibiltzen dira. Eta nahiko arriskutsua izango zen ni gaztea nintzenean hori egitea. Hala ere, unionismoak Irlandar Hizkuntzaren Legearen aurka borrokatzen jarraitzen du, adibidez. Beraz, gaur egun ere badago irlandarren aurkako negatibotasun hori. Unionismoa, oro har, politikoki ez da



ezohikoa, nahiko kontserbadora eta eskuindarra da. Beraz, haien estrategia guztia, zorritzarrez, etorkizuneko ikuspegia izan beharrean, dena geldiaraztean oinarritzen da. Gu, ordea, 25. urteurren honetan, datozen 25 urteei begira gaude.

Belfast bisitatzen duen orok ikusten ditu oraindik zutik dauden harresiak, eta komunitateek ere banatuta jarraitzen dute, adibidez, eskoletan.

Hori da bertsio negatiboa. Aldaketak egoteko ahalegina egin dugu eta komunitate arteko akordioak lortu ditugu. Baina alde batean eta bestean bizi den jendearen erritmora egin behar da. Hala ere, hori lidergoaren parte delako bultzatzen dugu guk. Eskolei dago kienez, katolikoen aurkako diskriminazio handia ere egon zen. Eliza Katolikoa bera fede

katolikoaren defentsan atera zen, erreprimitzen ari zelako. Ni eskola katoliko batera joan nintzen, ez naiz oso erlijiosoa, baina familia erlijioso batean hazi nintzen. Baina, berriro ere, ezin da behartu. Behartutako integrazioa badago, orduan ez dago benetan integrazioa. Bi sistema daude elkarrekin. Eskola integratzailerak daude eta irakasle apartak ditugu. Komunitate osoko gazteak joaten dira horietara eta arrakasta handia dute. Beraz, ez dago integrazioaren kontrako ikuspegirik, baina gurasoek eskolarik onena aukeratzeko dute, bai katolikoek bai protestanteek.

Lehen aipatu duzu urteurrena unionistek blokeatutako parlamentu batekin bizi izan dela, eta oso deseroso daudela brexit-aren osteko egoerarekin. Nola eragiten dio egoera horrek bakeari?

«Gu, 25. urteurren honetan, datozen 25 urteei begira gaude»



Tira, hutsune politiko bat dago, eta orduan adostu zena zapuzteko asmoa dutenek hori baliatzen dute. Beraz, arriskua dago militante unionisten aldetik, baita errepublikano talde disidente batzuen aldetik ere. Baina hirurogeita hamar, laurogei edo laurogeita hamarreko hamarkadetan geunden tokitik oso urrun gaude. Eta ez dago, nire ustez, ezer haiek lor dezaketenik. Une honetan egoera zailean gaude. Baina Ostiral Santuko Akordioa dugu, mundu osoan bakea erakitzeko adibide gisa erabili dena. Sinesmen handia dago gauza horiek politikoki konpon daitezkeela. Eta konfiantza handiz diot. Zerbait zientifikoa nahi baduzu, orduan begiratu hauteskundeei.

Sinn Feinek iparraldean eta hegoaldean lortutako emaitza harrigarriengatik diozu.

Ez gara iparraldeko eta hegoaldeko alderdi nagusia, uharterko alderdi nagusia baizik. Duela hamar urte inork ez zuen sinetsiko. Eta politikei zor zaie. Jendeak ulertzen duelako langileriaentzat ari garela hor. Ordezkatzeko ditugun eremuetan bizi gara. Eta ezin da jendea engainatu. Eta gero eta jende gehiagok daki unionisten blokeorako arrazoa ez dela brexit-aren protokoloa; ezin dute pentsatu ere egin emakume errepublikano bat lehen ministroa izango denik. Eta noizbait konturatu behar dira bizitzak aurrera jarraitzen duela, ez garela itzuliko lehen genuenera, eta horrek funtzionatzeko modu bakarra partekatzea da. Eta argi eta garbi utzi dugu etorkizunari buruz dugun ikuspegiak ez duela inor baztertzen. Ikuspegi unionista, berriz, hasieratik jendea baztertzea zen. Baina

nire bizitza politikoa oso goiz ikasi nuen gauza bat izan zen erakunde bakar bat ere ez dela monolitikoa. Beraz, zuzendaritza mailan ere iritzi desberdinak daude. Eta unionismoaren barruan eztabaidak daude. Eta Ostiral Santuko Akordioari begira ere bai; izan ere, DUPek ez zuen sinatu, baina Peter Robinsonek, buruzagia zenak, esan zuen Sinn Feinekin askoz lehenago hitz egin behar zutela. Eta horregatik diot nahiko baikorra naizela etorkizunari begira. Uste dut funtzionatzeko modu bakarra berdintasuna oinarri hartuta aurrera egitea dela. Nik esan ohi nuen ez zegoela arrazoirik berdintasunari heldurra izateko. Baina orain ez dut hori esaten, konturatu baintzen berdintasuna defendatzen baduzu, desberdintasunak daudelako dela. Besteek baino gehiago daukatenek ez diote erraz uko egiten horri.

Mary Lou McDonald Irlandako lehen ministroa izan daitekeela diote inkestek. Eta bere programan Irlandako herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea jasotzen du. Epe laburrean erreferenduma egiteko aukera ikusten duzu?

Uste dut Irlanda batua izango dugula eta agian nik ikusiko dudala, eta orain 70 urte ditut. Galdera ona da, baina ezin dut guztiz erantzun. Utz iezadazu honela azaltzen. Begira gure historiari, Sinn Feinen historiari eta mugimendu errepublikanoarenari. Sinn Fein 1905ean sortu zen. Eta, orain, gure historian inoiz baino gertuago gaude Irlanda batutik. Baina jendea gurekin behar dugu hori lortzeko. Eta orain inoiz baino elkartuago gaude. Orain inoiz baino indartsua-

goak gara. 1916ko aldarrikape-nak dokumentu garrantzitsua izaten jarraitzen du, eta hor jarraitzen dugu, mundu guztiak bidezko gizarte bat izan dezan nahi dugulako. Politika alde batera utzita, jende guztiak bidezko tratua izatea nahi dugu, jendeak etxe bat izateko eskubidea izatea, soldata duina izateko eskubidea izatea, hezkuntza, osasuna... Eta uste dut gero eta jende gehiagok onartzen duela hori.

Zein izango litzateke unionisten erreakzioa balizko erreferendum baten aurrean?

Botoa ematera joan beharko lukete. Beraz, haien erreakzioa ikusiko genuke. Ostiral Santuko Akordioaren parte da, orduko unionismoak ere sinatu zuena. Jendea izutzen saiatzen dira, nire ustez, aurrekora itzul gintezkeela esanez. Ez dut sinesten. Eta ez dut sinesten, ez baitut uste horretarako aukera dagoenik. Jendeak, armarik izanez gero, min egin dezake. Norbaitek bonba bat badu, min egin dezake. Baina gatazkan izan genuen indarkeria motari dagokionez, ez dut uste horretara itzuliko garenik. Uste dut ez garela inoiz hara itzuliko. Eta unionismoak ez gaitu horretara behartuko.

Zer irakaspen atera daitezke Irlandako bake prozesutik beste gatazka batzuetarako?

Beti esan dut gatazka guztiak amaitu behar direla, eta zenbat eta lehenago, orduan eta hobeto. Baina gatazken kausak badaude eta gatazken kausak gobernuko indarrek zein besteek aztertu behar dituzte. Bestalde, ezin duzu negoziatu alde aurretik erabakitako emaitza baten esperoan. Eta horrek ez du esan nahi kausari uko egin behar diozunik, inde-

pendentzia, sozialismoa edo dena delakoa izan daitekeena-ri. Beste iritzi eta sinesmenak entzun behar dituzu eta saiatu, konpromisoa negoziazioen parte baita. Beraz, zure aurkari-ri eskatzen badiezu haiek eman ezin duten zerbait, orduan ez zara benetan negoziatzen ari. Marra gorriak egon dira eta marra gorri horiek guztiak mugitu egin dira. Beharrezkoa da entzuteko gai izatea. Zure aurkariaren larrruan jartzeko gai izatea. Eta berriz ere, hori nahiko zaila da, baina egin daiteke. Eta uste dut, halaber, bakea gehien nahi zuten pertsonak borrokan inplikaturik zeudenak zire-

«Zure aurkari-ri eskatzen badiezu haiek eman ezin duten zerbait, orduan ez zara benetan negoziatzen ari»

la, nahiz eta jende asko horrekin ados ez egon.

Zer utziko die akordioak datozen belaunaldieei?

Funtsean, Britainia Handiko koloniarik zaharrena gara, non erresistentzia armatua zegoen. Ni ez nintzen esnatu, nerabe nintzela, eta erabaki nuen atera eta arma bat jaso nahi nuela. Baina gure belaunaldiko askok sentitu genuen diskriminazio endemikoa amaitu behar zela. Eta hori, nire ustez, eskubide zibilen aldeko mugimenduan frogatu zen, non jipoitu eta tirokatu egin gintuzten. Ez zen aukera erraza izan niretzat. Gatazka batean sartzen zarenean, borrokalari gisa sartzen zarelako. Baina sentitu nuen ez nuela beste aukerarik. Eta nire belaunaldiko askok gauza bera sentitu zuten. Gatazkak beste hamarkada asko iraun zezakeen. Beraz, lorpen handia dago Ostiral Santuko Akordioan. Baina batzuetan ahaztu egiten zaizu, eta bereziki garai zailetan gaudenean. Gazte, nazionalista eta katolikoak gine-nean, lan bat izateko borrokatu behar izan genuen. Eta diskriminazioa zegoen etxebizitza bat lortzeko, adibidez. Eta horrek eragina du zure konfiantzan. Batzuetan belaunaldi berriek ez dute ulertzen zer bizi izan genuen. Eta nik esaten diet haiek ez dutela hori eduki behar beren psikean. Haien lana beste bat da. Berdintasuna haratago eramatea da haien lana. Politika egokia egin dezagun. Partekatu dezagun boterea. Beraz, uste dut hori dela gizarte heldu baten helburua. Eta horren gainean eraiki ahal badugu, oso leku onean gaude. Haurrengan ikusten dut. Guk ez genuen konfiantza hori dute.

